

MARTXOAK 8

I.ADIERAZPEN LEHIAKETA

Emakumeen nazioarteko egunaren inguruan adierazpen lehiaketa bat antolatu dugu. Egun honen inguruko adierazpen bat egin beharko da, oinarrietan adierazitako formatuetako batean. Animatu eta egin zure adierazpena zeuk gustukoen duzun formatuan.

Lehiaketaren oinarriak:

- Lanak **Argazki, Marrazki, bideo, bertso edo olerki** formatuan egin beharko dira eta landuko den gaia “**Martxoak 8, emakumeen nazioarteko eguna**” izango da.
- **12-18 urte** bitarteko Azkoitiar guztiek har dezakete parte.
- Lanak entregatzeko **epea Otsailak 24** izango da.
- Lehiakide bakoitzeko ezingo dira hiru lan baino gehiago aurkeztu
- Aurkeztutako lan guztiak, modu batera edo bestera, argitaratzeko aukera izango dute antolatzaileek betiere egilearen aipamen edo sinadurarekin.
- Epaimahaiak gehienbat lanek zabaltzen duten mezua baloratuko du, orijinaltasuna eta kalitatea ere baloratuak izango diren arren.
- Epaimahaiaren iritziz, aurkeztutako lanen artean saria jasotzeko adina kalitate duenik ez badago, lehiaketa huts deklaratu ahal izango du
- **Martxoak 8an** argitaratuko da **irabazlea** eta “**Multimedia Tableta**” bat jasoko du sari gisa.
- Aurkeztutako lan guztiak martxoak 6 -10 bitartean ikusgai egongo dira Elkargunean.
- Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauen guztien onarpena dakar berekin.
- Lanak Artxamendi topalekuan, Gazte Informazio Zerbitzuan (GIZ) edo Artxamendi@gazteriazkoitia.eus helbide elektronikoan entregatu daitezke, bakoitzaren formatuaren arabera.